

Zertarako euskara?

Amaia Antero

Gaurko saio honetan ez nator egia borobilik botatzera, ez nator inor konbentzitzera. Nire baitan eta nire ingurukoekin elkarbanatu izan ditudan hainbat gogoeta eta intuizio azaltzea da nire gaurko asmoa. Beraz, hori argitu nahiko nuke ezer esaten hasi aurretik. Galderak sortu nahiko nituzke zuen baitan, beste ezer baino gehiago.

Uste dut bizitzako hainbat momentutan ona izaten dela egiten ari garenaz hausnartzea (zer da dagoeneko ongi doana, zer dago hobetzeko, ...). Honek arreta egiten ari garenaren *zentzuan* jartzera eramaten gaitu, egiten ari garenaren sakoneko motibazioekin konektatzera. Zertarako? Geure jarduna hobetzeko, eraginkortzeko eta aurrera jarraitzeko indarra hartzeko eta autokonfiantza berreskuratzeko. Ariketa horretarako lehen beroketa-lanak egiteko ahalegina izan nahi du saio honek.

Euskaraz ari garela, zer sentitzen dut nik euskal hiztun moduan? Zer dakit eta zer pentsatzen dut? Zein da euskarak nire baitan betetzen duen lekua? Eta zein nik euskararen baitan betetzen dudana? Zer egiten dut eta zer egin dezaket? Zein da euskaraz bizitzearen zentzua niretzat? Eta niretzat zentzua duen horrek zentzua du zuretzat? Zertan bai eta zertan ez? Eta niretzat zentzua duen horretatik zer sortu eta egin nahi dut nik? Eta guk? Uste dut lagungarria litzatekeela gutariko bakoitzak galdera hauen inguruko gogoeta egitea, ondoren, hizkuntz komunitate moduan behin eta berriro erantzun kolektiboak topatzen joateko.

Geuk, euskaldunok, zergatik, zertarako euskara? Hari horri tira nahi diot hasteko. Galdera hau era batera edo bestera erantzuteko ahalegina egina dago, bai gure inguru hurbilean bai munduko beste bazterretan ere: **Bizinahia**. Zergatik? Hala bizi nahi dugulako. Zertarako? Garenetik bizi ahal izateko. Euskara ez da gugandik/nigandik kanpo dagoen zerbait. Euskara bizirik nahi dut nik bizi nahi dudalako, ni izaten jarraitu nahi dudalako.

BIZI. Gure aurrekoek euskarari eutsi badiote, euskarak berak euren egunerokotasunean eta euren izaeraren zokorik ezkutuenean ere BIZIRIK zegoelako izan da Euskara euren bizipenei loturik zegoelako. Geure aurrekoengan

gaitasun batzuk garatu dituzte eta adierazpen kultural eta sozial jakin batzuetan topatzen dituzte euren gozamen-eremuak.

Barandiaranek euskaldunok zazpi galderari erantzuteko garatu ditugun moduetan ardazten du geure kultura.

- Nola lortuko ditut elikagaiak eta osasuna?
- Nola babestuko naiz?
- Nola ezagutuko dut mundua? Eta nola baliatuko naiz eskaintzen didanaz?
- Nola lagunduko diet nire kideei eta nola antolatuko dugu geure bizitza soziala?
- Nola komunikatuko naiz nire kideekin?
- Nola gozatuko dut gustuko ditudan gauzekin eta ekintzekin?
- Nor naiz ni, zer da gizakia, zein da bere egitekoa munduan?

Geure aurrekoek galdera hauei emandako erantzun propioetan oinarritu dute kultura. eta horretarako ere beharrezko zuten hizkuntza. Geure hizkuntza-komunitatea ere orain arte bertatik pasa diren beste herrieekin nahasten, aberasten, aldatzen joan den hizkuntza komunitatea izan da baina beti ere bere hizkuntza iraunaraziz. Oro har, bizitzen eta bizitzen uzten asmatu duen hizkuntza-komunitatea. Orain gure txanda da. Badugu geuk ere geure erantzun propioen kontzientziarik? Edota erantzun propioak topatzeko motibaziorik?

Gaurko hainbat euskaldunon susmoa da ez ote gabiltzan hemendik urruntzen eta auzokoaren (indartsuenen, noski) lilurak eraginda, hizkuntzaren oinarri-oinarrizko funtzio hori ere, identitatearena (beste hainbat funtzioen artean), albo-erdarek bete dezaten uzten (modu inkontzientean) eta euskara gainerako hizkuntzek originalean eskaintzen digutena fotokopiatzeko erabiltzen. Euskarak originala behar du izan hiztunarentzako, ez fotokopia. Fotokopiaren fotokopiaren fotokopia ez da ondo irakurtzen, ez da ondo ulertzen. Beraz, ez du balio.

Euskara komunikazio-tresna gisa baliatzea ez da aski etorkizunean bizirik iraun dezan, galdua baitauka lehia inguruan dituen hizkuntza eta kulturaren nagusi eta menperatzaileen aurrean. Funtzio sinboliko hutsean geratzeak ere horixe ekar dezake ikur moduan geratzea baina hiztunen eguneroko bizipenetan barneratu gabe egotea.

Horretxegatik diot hiztunaren planoari dagokionean, gutariko bakoitzaren mundu propioa edo nahi bada identitatean leku egitean dagoelako gakoetan bat, berriro diot, ez bakarria baina bai garrantzitsua. Bestela esanda,

Euskaraz bizitzeko espazioetan erdararako joera duen horri lagundu egin behar zaio jokaera horren erroetara iristen, hortaz jabetzen. Garbi dago, ez gara kasu isolatu batez hitz egiten ari. Jokamolde orokorrak dira eta zerbaitegatik gertatzen dira. Saia gaitezen mehatxuaren eta epaiaren bidea alde batera uzten eta egin dezagun euskara jakinda ere hitz egiteko joera ez duen horri jokaera horren arrazoiak eta nondik norakoak azaltzeko ahalegina. Azken batean, pertsona horrek bere jokaeraren kontzientzia hartzeko eta batez ere aldatzeko, lehenik eta behin, ulertu egin behar du zer den gertatzen zaiona. Egoera honetara ekarri gaituzten baldintza historikoen kontzientzia hartu behar du, horrek lagunduko baitio ikusten zergatik den euskararen egoera den bezalakoa une honetan eta ez beste bat, zergatik dituen aurreiritziak bere hizkuntzaren inguruan, zergatik dauden euskararen erabilera oztopatzen duten mekanismo sozialak, zergatik batzuek ez dakiten euskaraz eta uste duten mundu guztiak jakin behar duela gaztelaniaz, eta abar eta abar.

Azken batean, esan nahi dudana da kontzientzia dela konpromisoaren aurretiko urratsa eta hau ezin dugula egintzat eman. Landu egin behar dela, alegia. Eta horixe da esan nahi dudana euskaldunontzako euskaraz bizitzea egin beharretik baino gehiago *nahi kontzientetik egindako hautua* izan behar dela esaten dudanean.

Honetaz ari garela, gogoan dut behin Jon Sarasuari irakurritakoa: "Nik ez dakit azkenean Euskal Herri euskalduna lortuko dugun, baina nire burutik hasita espazioak euskaraz betetzen saiatzen naiz. Edozein kasutan ere, hori delako egin dezakedana, egin nahi dudana, eta niretzat zentzua duena".

Uste dut egokia dela berak planteatzen duen sekuentzia, hain zuzen ere, egingarria, mugiarazlea delako eta sakoneko motibazioekin konektatzera eramaten gaituelako.

Hiru galdera hauei erantzutera garamatza:

1. Zer egin dezaket? Nik bakarrik ezin dut Euskal Herria euskaldundu baina nire baitan eta nire inguru hurbilean eragin dezaket. Zer da, beraz, objektiboki egin dezakedana? Planteamendu errealista bat egitera narama galdera honek.
2. Zer egin nahi dut? Egin dezakedan horrek motibatzen nau? Zeren, egin ahal izanik ere erakartzen ez banau ez nau barrutik mugituko, ez dut gogotik biziko. Eta beraz, edo bide motza izango du, edota erre egingo naiz.
3. Egin dezakedan eta egin nahi dudana horrek *zentzua* du niretzat? Egin dezakedan eta egin nahi dudana horrek nire sakoneko motibazioarekin bat egin du?

Galdera honen erantzunean topatuko dut egin behar dudan bidea egiteko behar dudan gasolina. Lehen puntuari aipatu dudana X ekintza egingo dut eta egin nahi dut, sakon-sakonean Y arrazoia edota motibazioa dudalako horretarako. Gasolina.

Nire izate osoa inplikatzeko denean (burua, sentimendua eta barne-kontzientzia) horrek izugarriko indarra dauka, mugiarazlea da eta ekintzara eramaten nau.

Galderak sortu nahiko nituzkeela esanez hasi dut nire jarduna eta horrelaxe bukatu nahiko nuke. Goian aipatu ditudan gogoeta edo intuizioak entzun ostean, hasieran aipatu ditudan galderak itzultzen dizkizuet zuetako bakoitzari, zuek ere hausnarrean jarri asmoz:

Euskaraz ari garela, zer sentitzen dut nik euskal hiztun moduan? Zer dakit eta zer pentsatzen dut? Zein da euskaraz nire baitan betetzen duen lekua? Eta zein nik euskararen baitan betetzen dudana? Zer egiten dut eta zer egin dezaket? Zein da euskaraz bizitzaren zentzua niretzat? Eta niretzat zentzua duen horrek zentzua du zuretzat? Zertan bai eta zertan ez? Eta niretzat zentzua duen horretatik zer sortu eta egin nahi dut nik? Eta guk?

Azkenik, Afrikako tribu bateko erritual bat kontatuz bukatu nahiko nuke.

Afrikako tribu bateko emakumeek hardun daudela sumatzen dutenean, beste emakume batzuekin batera oihanera joaten dira eta otoitzean eta hausnarrean aritzen dira sortuko den haurraren kantua agertzen den arte.

Haurra sortzen denean, komunitate osoa batzen da eta haurrari bere kantua kantatzen dio. Haurraren heziketa garaia hasten denean, herria bildu egiten da berriz ere eta bere kantua kantatzen dio haurrari. Heldu aroan, elkartu eta abestu egiten diote. Ezkontzeko garaia heltzen denean, pertsonak bere kantua entzuten du.

Azkenik, pertsona horren arimak mundu honetatik besterako bidea egin behar duela sumatzen dutenean ere, familiartekoak eta lagunak bildu egiten dira eta kantatu egiten diote. Baina tribu honetan bada kantua hau entzuten den beste momentu bat ere. Pertsona horrek bere bizitzan zehar uneren batean oker handiren bat egiten badu, komunitatearen erdian jarri eta orduan bere kantua kantatzen dio.

Kantuak bere baitara biltzen du tribu honetako kide bakoitza, norbere izatera.

Garenaren zentzua topatzen saiatzea da kontua.